

Gaigabeziak dituzten pertsonen egoera ulertzeko tresna den O.M.E.ren *gaigabeziaren eta osasunaren funtzionamenduaren sailkapen internazionalaren* ekarpenak

M^a Lourdes Aparicio Ágreda*

Sarrera

Historian zehar gaigabezia argitzeko eredu ezberdinak sortu eta garatu izan dira. Horiek nazioetan osasun eta gizarte politika mailan aurrera eraman diren ekintzetan eragin handia izan dute. Batez ere, gaigabeziak ulertu eta sailkatzeko moduek eta erakundeek eta gizarteak eman dituzten erantzunak baldintzatu dituzte. Horiek dirrela eta, XX. mendearen bukaeran eta XXI. mendearen hasieran gaigabeziaren gaia ulertu eta honi heltzeko ezartzen ari den modu berria dugu. Kontzeptualizazio berri honetan oinarritzen da Osasunaren Munduko Erakundeak diseinaturiko Gaigabeziaren eta Osasunaren Funtzionamenduaren sailkapena (OMS, 2001). Bere garrantziko erakarpenak azaltzea da artikuluko honen helburu nagusia.

1. Zer da FSIA?

Osasunaren Munduko Erakundeak (1980) Urritasunak, Gaigabeziak eta Minusbalioari buruzko sailkapenaren oinarrian zegoen eredu kausalaren eta direkziobakarrekoaren alternatiba izan nahi duen Gaigabeziaren eta Osasunaren Funtzionamendua-

* Nafarroako Unibertsitate Publikoa.

ren sailkapena aurkeztu zuen 2001ean. Lan prozesu luze baten emaitza izan da, zeinetan dokumentuaren zirriboetan eta landa ikerketetan O.M.E.ko Estatu Kideen diziplina eta sektore askok parte hartu duten.

Dokumentu honek gaigabezia osasunaren kontestu zabalagoan kokatzen du, guxtiendo talde bati dagokion arazotzat hartu beharrean populazio osoari eta edozein momentuan izan dezakeen egoera bezala aurkezten digularik.

Pertsonarengan duen eraginari dagokionez, testuak gaigabezia duen pertsonaren gaitasuna hobetzeko eta bere komunitatean kalitatezko bizitza izan dezan ikuspuntu ezberdinak eskeintzen ditu. Hau da, bizitzan jartzen du interes nagusia, osasun arazoak dituzten pertsonak bizi diren erak aztertuz eta horrekin pozik izan daitezen.

Hurrengoan, O.M.E.k diseinaturiko Gaigabeziaren eta Osasunaren Funtzionamenduaren sailkapena (OMS, 2001)ren garrantzizko erakarpenak azaltzen dira.

2. FSIaren helburuak

FSIa helburu anitzerako diseinaturiko sailkapen bat da, zenbait disziplina eta sektore ezberdinetan erabiltzekoa. Oinarrizko helburuak hurrengoak ditu:

- Osasunaren eta osasunarekin erlazionaturiko egoeren ulermenerako eta ikerketarako oinarri zientifikoak ematea.
- Osasunaren eta osasunarekin erlazionaturiko egoerak deskribatzeko hiztegi amankomun bat sortzea.
- Herrialde artean, osasun disziplinen artean, zerbitzuen artean eta denboran zehar une ezberdinen artean ditugun datuen artean alderaketak egitea.
- Kodifikazio eskema sistematizatu bat ematea alor ezberdinetan aplikatu ahal izateko.

3. FSIaren ezaugarriak

O.M.E.ak diseinaturiko sailkapenaren ezaugarri garrantzitsuenak honako hauek dira:

- FSIak osasunaren alderdi guztiak eta osasunean eragina duten ongizatearen zenbait osagai barneratzen ditu.
- Aplikazio unibertsala du, hau da, pertsona guztientzat aplikagarria da. Osasuna eta osasunarekin erlazionaturiko egoerak, osasunarekin edozein egoerarekin loturik, FSIa erabiliz deskriba daitezke.
- FSIak ez ditu pertsonak sailkatzen, pertsona bakoitzaren egoera deskribatzen du baizik. Gainera, deskripzioa beti giro eta pertsona faktoreen testuinguruan egiten da.
- FSIak giza funtzionamenduarekin erlazionaturiko egoeren eta beren murrizketen deskripzio bat ematen digu.

- Sailkatzen duen urritasuna, pertsonaren osasun egoera baten eta pertsona bizi den testuinguru fisiko eta sozialaren emaitza dela eta, FSIa era global batez erabili behar da.
- Osasunaren eta osasunarekin erlazionaturiko alderdien sailkapen bat denez, beste sektore batzuetan erabiltzen da: aseguruetan, segurtasun sozialetan, lan-sisteman, hezkuntzan, ekonomian, politika sozialean, arau garapenean, giro-al-daketan, etabar.
- Sailkapen bezala, gaigabeziak baloratu eta neurtzeko, FSIak ebaluaketa zientifiko, kliniko, administratibo eta sozialeko testuinguru askotan erabiltzeko balio du.
- FSIa bi bertsiotan aurkezten zaigu, erabiltzaile ezberdinen eskakizunak betetzeko asmoz, beren beharren arabera. Beraz, FSIaren bertsio osoa eta laburra ditugu.

4. FSIaren osagaiak eta beren kontzeptualizazioa

FSIaren Osagaiak

	1 Zatia: <i>Funtzionamendua eta Gaigabezia</i>		2. Zatia: <i>Kontestu Faktoreak</i>	
Osagaiak	Funtzio eta egitura korporalak	Jarduerak eta Partehartzea	Giro Faktoreak	Faktore Pertsonalak
Domeinuak	Funtzio Korporalak Egitura Korporalak	Biziko esparruak (lanak, ekintzak)	Funtzionamenduaren eta gaigabeziarenganako kanpo eraginak	Funtzionamenduaren eta gaigabeziarenganako barne eraginak
Konstruktoak	Aldaketak Funtzio korporaletan (fisiologikoak) Aldaketak gorputzaren egituratan (anatomikoak)	Lanak egiteko gaitasuna giro uniforme batetan Lanak burutzea/betetzea giro erreal batetan	Mundu fisikoaren ezaugarrien efektu bideratzaile edo oztopatzailea	Pertsonaren ezaugarrien efektuak
Alderdi baikorrak	Osotasun funtzional edo estrukturala	Jarduerak Partehartzea	Bideratzaileak	Ez dagokio
	Funtzionamendua			
Alderdi ezkorak	Urritasuna	Jardueraren mugapena Partehartzearen mugapena		Ez dagokio
	Gaigabezia			

OMS (2001: 12)

Hurrengoan, taula honetan agertzen diren FSIaren osagaiak eta haien arteko harremanak azaltzen dira.

Lehenik, FSIak bi zati dituela, osagai binarekin nabarmendu nahi dugu:

1. zatia: Funtzionamendu eta Gaigabezia
 - a. Funtzio eta Egitura Korporalak
 - b. Jarduerak eta Partehartzeak
2. zatia: Testuinguruko Faktoreak
 - c. Giro Faktoreak
 - d. Faktore Pertsonalak

Taulan agertzen den moduan, osagai bakoitzak zenbait domeinu du eta domeinu bakoitzean kategoriak ditugu, hots, sailkapen unitateak. Kalifikatzaileak kategoria horien funtzionamenduaren edo gaibeziaren zabalera edo magnitudea zehazten duten zenbakizko kodigoak dira.

Gainera, osagaiak termino baikorreen edo termino ezkorreen azal daitezke.

Funtzionamendua gorputz funtzioak, gorputz egiturak, jarduerak eta partehartzea biltzen dituen termino generikoa da. Indibiduoaren eta bere testuinguruko faktoreen arteko elkarrazioaren alderdi positiboak adierazten ditu.

Gaigabezia, jardueran urritasunak eta mugapenak, eta partehartzean murritzetak barneratzen dituen terminoa da. Indibiduoaren eta bere testuinguruko faktoreen arteko elkarrazioaren alderdi negatiboak adierazten ditu.

Gorputza diogunean, giza-organismoari buruz ari gara, bere osotasunean. Bi sailkapen ditu: bata, sistema korporalaren funtzioentzako, eta bestea, gorputzaren egiturantzako.

Funtzio korporalak sistema korporalaren funtzio fisiologikoak, psikologikoak barne, dira. Funtzio hauek baloratzeko erabilitako estandarra gizakientzat arau estatistikotzat hartzen duguna da.

Egitura korporalak gorputzaren alde anatomikoak dira, hau da, organoak, gorputz adarrak eta beren osagaiak. Egitura hauek baloratzeko erabilitako estandarra gizakientzat arau estatistikotzat hartzen duguna da.

Urritasunak funtzio edo egitura korporaletan emandako anormaltasuna edo gal-tzea dira. Gorputzaren eta bere funtzioen egoerari dagokienez, ezarritako arau estatistikoen araberako desbiderapen adierazgarri batetaz ari gara.

Urritasunak iragankorrak edo iraunkorrak izan daitezke; progresiboak, erregresiboak edo estatikoak; etenakoak edo jarraikoak. Arauarekiko desbideraketa xumea edo larria izan daitezke, eta denboran zehar gorabeherak izan ditzakete.

Urritasun egoerak ez du erlazio kausalik ez bere etiologiarekin, ezta bere garatzeko erarekin ere. Nahiz eta urritasun baten agerpenak, beharrez, kausa bat izan behar duen, agerturiko urritasuna azaltzeko kausak ez du zertan nahikoa izan behar. Gainera, urritasun bat agertzen denean, baita ere gorputzaren funtzio eta egituretan dis-

funtzio bat emango da, baina hau edozein gaixotasun, gorabehera edo egoera fisiko-ekin egon daiteke erlazionaturik.

Hala ere, urritasunak osasun egoera baten alderdi bat edo adierazpen bat direlarik, beharrez, ez dute zertan gaixotasun baten agerpena azaldu behar, ezta indibiduo gaixo izatea azaldu ere. Beraz, urritasun kontzeptuak zabaltasun handiagoa du eta alderdi gehiago barneratzen ditu gaixotasunak edo gorabeherak baino.

FSIan urritasunak kategoria egokietan sailkatzen dira, ongi definituriko irizpideak erabiliz. Irizpide hauek berberak dira funtzio eta egitura korporal hauentzako: a) galtzea edo egoneza; b) murrizpena; c) gehipena edo gehiegia; eta d) desbideraketa.

Jarduera eta Parte-hartzea osagaia bizitzako jarduketara eta esparru ezberdinei dagozkien eremu neutroen zerrenda bat da. Funtzionamenduarekin erlazionaturiko alderdiak adierazten dituzten domeinuen maila osoa hartzen du, bai ikuspuntu indibidualetik baita sozialetik ere.

Jarduera eta partehartze osagaietarako domeinuak zerrenda bakar batean agertzen dira, bizi esparruen tarte guztia betetzen dutelarik.

Jarduera pertsona batek lan edo ekintza bat egitea da, gizartearen ikuspuntua adierazten duelarik funtzionamenduari dagokionez.

Zentzu negatiboan, *jardueraren mugapenak*, jarduera bat burutzeko/betetzeko pertsona batek izan ditzakeen zailtasunak dira. Jardueraren mugapen batek jardueraren burtzean desbiderapen txiki batetik larri bateraino biltzen du kantitateari edo kalitateari dagokionez, beti ere osasun baldintzapen hori ez duen pertsona batek burutuko lukeen erarekin alderatuz.

Partehartzea bizi egoera batetan pertsonaren inplikazioa da. Gizartearen ikuspuntua adierazten du funtzionamenduari dagokionez.

Bere adierazpen ezkorra, *partehartzearen murrizpenak*, pertsona batek biziko egoeratan inplikatzeko izan ditzakeen arazoak dira. Partehartzearen mugapenak, pertsona horren partehartzea eta, kultura edo gizarte horretako gaigabeziarik gabeko pertsona batengandik espero daitekeen partehartzearen arteko alderaketatik dago zehazturik.

Mugapenak eta murrizpenak populazioak onarturiko estandar batzuekin alderatuz baloratzen dira.

Burutzel/betetze kalifikatzaileak pertsona batek bere egungo testuinguruan egiten duena deskribatzen du. Mugapenak eta murrizpenak populazioak onarturiko estandar batzuekin alderatuz baloratzen direnez, espero den eta benetan den burutze/betzearen arteko aldea neurtzen dute.

Gaitasun kalifikatzaileak indibiduo batek lan edo ekintza bat burutzeko duen trebetasuna azaltzen du. Bere helburua, daitekeen funtzionamendu mailarik altuenean, pertsona batek domeinu batetan eta momento zehatz batetan lor dezakeena azaltzea da. Hori dela eta, pertsonaren ahalmen gorena baloratzeke, indibiduaren gaitasune-

an testuinguru ezberdinek izan dezaketen efektua neutralizatzearen, testuinguru “normalizatu” bat izatea beharrezkoa da. Testuinguru normalizatu hau honako hau izan daiteke: a) egungo testuinguru bat, normalean ebaluaketa uneetan gaitasunak baloratzeko erabiltzen dena; b) aurrekoa posible ez denean, efektu uniforme bat duen testuinguru bat onartzen da. Testuinguru hau uniforme edo normalizatu deitzen zaio.

Beraz, gaitasuna indibiduoaren giroaren arabera ahalmen egokitua da. Eta egokitze honek berdina izan beharko du pertsona guztientzat eta herrialde guztientzat, konparaketak egin daitezkeen.

Gaitasun eta burutze/betetzearen arteko bereizketa izango da testuinguru erreal eta uniformearen arteko efektu diferentzia erakusten duena eta, beraz, indibiduoaren burutze/betetzea hobetzeko bere testuinguruan egin daitekeenari buruz gida erabilgarri bat eskaintzen diguna.

Testuinguruko Faktoreak indibiduo baten bizitzaren testuinguru osoa elkarrekin osatzen duten faktoreak dira. Bi osagai dituzte: Giro Faktoreak eta Faktore Pertsonalak.

Giro Faktoreak giro fisikoa, soziala eta jarduera giroa ditugu, non pertsonak bizi diren eta bizitza bideratzen duten. Faktore hauek indibiduoaren at daude eta eragin positiboa edo negatiboa izan dezakete gizarteke kide den pertsonarengan, bere burutze/betetzean, indibiduoaren gaitasunean edo bere egitura eta funtzio korporaletan. Honako hauek barneratzen dituzte: mundu fisiko naturala bere ezaugarri guztiekin, gizakiak sortutako mundu fisikoa, gainontzeko pertsonak, zeinekin erlazio eta paper ezberdinak ezartzen diren, jarrerak eta baloreak, zerbitzuak eta sistema sozial eta politikoak, eta arauak eta legeak.

Giro Faktoreak bi mailetan antolatzen dira, indibiduoaren testuinguru hurbilenetik hasita inguru orokorrera helduz:

Giro faktoreen maila indibidualak indibiduoaren testuinguru hurbilean –etxea, lantokia, eskola eta halako tokietan– dagoen jabego fisiko eta materiala barne hartzen ditu eta haiekin indibiduoaren elkarerlazioan egoten da.

Giro faktoreen maila sozialak lan giro, jarduera komunitario, gobernuko agentzia, komunikabide, garraio zerbitzu eta sare sozialekin erlazio naturiko erakunde eta zerbitzuak, legeak, arau formal eta informalak, jarrerak eta ideologiak barne hartzen ditu.

Giro Faktoreak “Funtzio eta Egitura Korporalak” en eta “Jarduerak eta Partehartzeak” osagaiekin elkarrengatik daude. Elkarrengatik hau dela eta, gaigabezia honela dago definiturik: pertsona baten osasun egoeraren, bere faktore pertsonalen eta pertsona horrek bere inguruan dituen egoerak baldintzatzen dituen kanpo faktoreen arteko erlazio konplexu baten emaitza da. Ondorioz, giro ezberdinek osasun egoera bat duen indibiduoaren efektu ezberdinak izan ditzakete. Hau da, oztopoak dituen inguruak edo bideratzailerik ez duenak indibiduoaren burutze/betetzea murriztuko du; aitzitik, bideratzaileagoak diren beste inguruek indibiduo horren burutze/betetzea handituko dute.

Faktore Pertsonalak indibiduo baten bizitzaren eta bere bizi estiloaren sustrai propioak dira. Baldintza batzuk edo osasun egoerak ez diren indibiduoaren ezaugarriek osatzen dute. Faktore hauek honako hauek izan daitezke: sexua, arraza, adina, osasun beste egoerak, forma fisikoa, bizi estiloak, ohiturak, arazoei aurre egiteko eta konpontzeko estiloak, sustrai soziala, hezkuntza, lanbidea, egungo esperientziak eta antzinakoak, jokabide eredu globalak eta nortasun mota, alderdi psikologiko pertsonalak ete beste ezaugarri batzuk. Nahiz eta hauek guztiak osotasunean, baita hauek tariko batzuk indibidulaki paper garrantzitsua bete edozein mailako gaigabezia, FSIan ez dira sailkatzen.


Bideratzailak, bertan daudenean edo bertan ez daudenean, funtzionamendua hobetzen eta gaigabezia murrizten duten pertsona baten inguruko faktore guztiak dira.

Barrerak, bertan daudenean edo bertan ez daudenean, funtzionamendua mugatzen eta gaigabezia sortarazten duten pertsona baten inguruko faktore guztiak dira.

Giro faktore bat bideratzailatzat edo barreratzat hartzea justifikatzen duten arrazoi anitzak daude, baita zein neurritan halakoa den ere.

5. Funtzionamenduaren eta Gaibeziazen Eredua

FSIak funtzionamenduaren eta gaigabeziazen prozesu interaktibo eta ebolutiboa erakusten digu. Hurrengo diagraman bere osagaien arteko elkarreagina ikus daiteke.



OMS (2001: 21)

Diagrama honen arabera, indibiduo baten funtzionamendua domeinu zehatz batetan osasun egoeraren eta Testuinguru Faktoreen arteko erlazio konplexu edo elkarrekizko bezala ulertzen da. Beraz, elementu batetan ematen diren aldaketa edo esku-hartzeak beste elementu bat edo gehiago aldatzeko indarra dute. Gainera, ger-

tatzen diren elkarrekintza hauek ez dira beti elkarrenganako erlazio auresangarri batetan ematen. Osasunaren esperientziak ezberdinak izan daitezke:

- Pertsona batek, gaitasunean mugapenik gabe, urritasunak izan ditzake.
- Pertsona batek gaitasunean mugapenak eta burutze/betetze arazoak izan ditzake, nabariko urritasunik izan gabe.
- Pertsona batek burutze/betetze arazoak izan ditzake, gaitasunean urritasun edo mugapenik izan gabe.
- Pertsona batek gaitasunean mugapenak izan ditzake laguntzarik gabe, eta eguneroko inguruan burutze/betetzeari arazorik ez izatea.

Horiek direla eta, pertsonaren gorputz funtzioen urritasun baten, jarduketan mugapenen edo partehartzean murriztapenaren arteko erlazioei buruzko dedukzioerik ez da egin behar. Alderantziz, pertsona bakoitzari Funtzio eta Egitura Korporalei buruzko eta gaitasun eta burutze/betetzeari buruzko ageriko informazioa eman behar zaio independententeki.

Historian zehar eredu kontzeptual ezberdinak proposatu dira gaigabezia eta funtzionamendua azaldu eta ulertzeko. Huetariko bi –eredu medikua eta soziala–, kontrajarriak direnak, arrakasta gehien izan dutenak dira.

Eredu medikuaren arabera, gaigabezia pertsonaren arazotzat hartzen da, zuzenean gaixotasun, trauma edo osasun egoera batek sortua eta, beraz, profesionalak emandako tratamendu indibidual motako laguntza medikua behar du. Osasun zerbitzuak lehen mailako behartzat hartzen dira eta gaibeziaren tratamenduaren helburua sendatzea da, pertsonaren egokitze hobea eta bere jarreraren aldaketa sortuz.

Gaigabeziaren eredu sozialak gaigabezia, oinarrian, jatorri sozialeko arazotzat hartzen du eta, batez ere, pertsonak gizartean integrazio mailan duen kontu bezala. Beraz, gaigabezia ez da pertsonaren ezaugarri bat, baldintzen multzo konplexu bat baizik, hauetariko asko testuinguru sozialak sortuak. Arazoa ideologian edo jarreraren kokatzen denez, soluziobidea aldaketa sozialen esku eta politika esparruan bilatzen da.

FSIari dagokionez, bi aurkako eredu hauen batasunean oinarritzen da. Funtzionamenduaren dimentsio anitzen integrazioa lortzea helburu izanik, sailkapen honek ikuspuntu biopsikosoziala erabiltzen du. Honela, ikuspuntu biologiko, indibidual eta sozial batetik, osasunaren dimentsioen ikuspuntu koherente bat eskeintzen du.

6. FSIaren gaigabeziak dituzten pertsonen buruzko kontzeptualizazioa

Osasunaren Munduko Erakundeak gaigabezia gertaera unibertsaltzat hartzen du, populazio osoa arrisku egoeran aurkitzen delarik. Ondorioz, ez da populazio talde bat beste batengandik bereizten duen ezaugarriarik, giza izaeraren berezko nolakotasuna baizik. Gizakia, funtsean, izaki mugatua edo erlatiboki gaigabetua, gizarteak eta inguruneak eskaera anitz eta aldakorrei aurre egiteko beharrezko habilezia multzo

osoa ez dauka. Honek gaitasuna eta gaigabeziaren arteko muga zehatzak, etengabe aldatzen ari direnak jartzea ezinezkoa izatea dakar berekin.

Gainera, gaigabezia pertsona beten funtzionamenduaren mugak kontestu zehatz batean definitzen da. Honek esan nahi du testuinguruko faktoreak funtzionamendua-rekin eta gaigabeziarekin erlazionatu eta haietan eragina duen dimentsio bat direla.

Beraz, gaigabezia eta funtzionamendua kontzeptu dinamikotzat jotzen dira eta pertsona guztietan bai gaitasunak bai mugapenak aldi berean ematen dira.

Aurrekoaren arabera, FSIak eskeintzen duen pertsonaren deskribapenak horren funtzionamenduaren eta gaigabeziaren soslaia ezagutzeko bidea ematen digu.

Osasunaren Munduko Erakundeak pertsonaren estigmatizazioa, etiketazioa gutxiespena eta konotazio desagokiak ekiditzeko asmoz, FSIaren kategoriak neutralki adierazten dira.

“Funtzio eta Egitura Korporalak” eta “Jarduerak-Partehartzeak” kontzeptuek lehen “urritasun”, “gaigabezi” eta “minusbalio” terminoak ordezkatzen dituzte. Gaigabezia fenomeno multidimentsional baten adiera da, pertsonak inguru fisiko eta sozialarekin duen interakzioaren emaitza delarik. Osasun ezaugarrien eta testuinguruko faktoreen elkarrakzioak gabezia sortarazten du.

“Minusbalio” terminoari dagokionez, erabat baztertu du eta “gaigabezia” terminoa osagai baten izena bezala ez erabiltzea erabaki zuen ere, termino generiko orokorra bezala baizik.

Garrantzia ematen zaio pertsonak beren urritasunen, jarduketan mugapenen edo partehartzean mugapenen arabera definituak ez izateari. Horregatik, pertsonen bizitzen eta giro efektuen egoera indibidualen testuingu barne, beren osasunaren ezaugarriak sailkatzen ditu, beti ere hiztegi zehatza eta neutrala erabiliz.

Osasunaren Munduko Erakundeak gaigabeziak dituzten pertsonak sailkapenetik eta ebaluaketatik etekin ateratzea lortu nahi du. Helburu hau izanik, gizarteko sektore guztietan FSIaren erabilera bultzatu nahi du, ideia politiko, ikerketa zientifiko eta komunitateko egoera eta jarrerak pertsona hauentzat lagungarri izan daitezzen.

Sailkapen honek gaigabeziaren arazo nagusiaren sorrera non kokatzen den identifikatzen laguntzen duenez, gaitasunaren laguntzarako izan daitezkeen helburu eta eskuhartzeko orientabide erabilgarriak eskeintzen ditu.

Nahiz eta FSIa tresna politikoa ez izan, bere hedatzeak eremu honetako ekintza politikoak bultzatzeko balio behar du, batez ere, osasun politika mailan erabaki zuzen eta egokiak ezartzen laguntzen duten informazio eta materiala emanaz, guttientzako aukera berdintasuna eraginez eta gaigabezian oinarrituriko bereizkeriaren aurkako borrokan lagunduz.

Gaigabezi bat duten pertsonen jokaerari dagokionez, sailkapen honek eragin zuzen eta positiboa du. Ezin dugu ahaztu gizakiok, neurri handi batean, guregandik espero dena izatera iristen gara. Horrela, gaigabezi bat duen pertsona balio askok osatutzat jotzen bada eta berarengandik zerbait espero bada, bere ahalmenak garatu ahalizateko aukera gehiago daude, bere urritasunak baino ikusten ez ditugun eta berarengandik ezer edo gutxi espero den egoeretan aurkitzen denean baino.

7. Bibliografía

- O.M.S. (1980): *Clasificación Internacional de Deficiencias, Discapacidades y Minusvalías*, Madril, Imserso.
- O.M.S. (2001): *Clasificación Internacional del Funcionamiento, de la Discapacidad y de la Salud*, Madril, Imserso.

LABURPENA

Artikulu honek Osasunaren Munduko Erakundeak aurkezturiko “Gaigabeziaren eta Osasunaren Funtzionamenduaren Sailkapen Internatzionala” –FSI–can proposaturiko gaigabeziaren kontzeptualizazio berria laburtzen du. Horretarako, dokumentu honen helburuak, osagaiak eta ezaugarri garrantzitsuenak. Aldi berean, gaigabeziak dituzten pertsonen buruz duen ulermena aztertzen da.

RESUMEN

El presente artículo presenta, de forma breve, la nueva conceptualización acerca de la discapacidad expuesta por la Organización Mundial de la Salud en su “Clasificación Internacional del Funcionamiento, de la Discapacidad y de la Salud” –CIF–. Para ello, se describen los objetivos, componentes, principales características de este documento. Asimismo, analizamos su comprensión acerca de las personas con discapacidad.

ABSTRACT

This article tries to shows, in a brief way, the new conceptualization about disability presented by the World Health Organization in this “International Classification of the Functioning, of the Disability and of the Health”. Our goal is to describe the aims, contents and mains characters of this document. At the same, we like to analyse and understand people with disabilities.